



Iruñea, 2019ko Ekainaren 16a

Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrak ikerketa eta dibulgazio jarduerak antolatzen ditu Nafarroako gobernuak babestuta, zeinak jende guztientzako irekiak diren.

Orain dela hiru urte, etnografoa den Pablo Orduna Portús eta Biologoa den Virginia Pascualek Erronkari Ibaxako gida etnobotanikoa atera zuten. Proiektu hau, nobedade akademikoa izateaz gain, sekulako harrera izan zuen bertako bailarakoen, nafartarren artean eta mugetatik at, hainbat kongresu eta jardunaldi akademikoetan. Honek piztu du gogoia flora aldetik hain aberatsa den Xaretan antzeko proiektu bat burutzeko, bertako floraren erabilera etnografiko desberdinen inguruan hain zuzen ere.

Proiektuak hainbat fase ditu. Lehenengoa, Xareta bailarako herri bakoitzean (Zugarramurdi, Urdazubi, Sara y Ainhua) hitzaldi-tailer bat ematea izango da, zeinaren xedea proiektua aurkezteaz gain, inkesta etnografikorako informatzaileak proiektuan parte hartzen animatzea da. Bigarren fasea, landa lana deritzona da, non hainbat zeregin egongo dira, horien artean: Informatzaileei inkestak burutzea, informatzaileek aipatutako landareen/arbolen jasotzea eta argazkia ateratzea, landare/arbola horien herri-izenak jasotzea, datuen fitxategi bat sortzea, besteak beste.

Ikerketa hau Biologoa den Amaiur Unzueta Zorrozuak burutuko du, zeinak gainbegirale gisa aipatutako Pablo Orduna eta Virginia Pascual, Etniker-Nafarroako den idazkaria Naiara Ardanaz, eta batez ere hots handikoa den eta Saran kokatzen den Etniker-Iparraldeko, biologo eta etnologo frantsesa edukiko dituen.

Proiektua Xareta bailarako gida etnobotanikoaren edizioarekin bukatuko da, zeina aurreikusten den euskeraz, gazteleraz eta frantsesez argitaratzea, Lamiñarra argitaletxearen eskutik.

Fdo. Naiara Ardanaz Iñarga
Euskal Hizkuntza eta Kultur Katedrako Zuzendariordea
Etniker-Nafarroako idazkaria